



**2024KO APIRILAREN 25EKO
OHIKO OSOKO BILKURA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hogeita lauko apirilaren hogeita bostean, arratsaldeko sei eta erdietan, Lazkaoko Udal Osoa bildu da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Kepa Zubiarrain Erauskin Alkatearen lehendakaritzapean, ohiko batzarraldia egin asmoz.

Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Eneritz Miranda Muxika, Aitor Altuna Oiarbide, Amagoia Naldaiz Mingo, Josetxo Sese Eztala, Unbe Echaniz Perez, Aritz Goicoechea Gonzalez de Audicana, Joxemai Ormazabal Sukia, Aitziber Azurmendi Imaz, Egoitz Bergara Azpirotz, Maialen Amundarain Irizar, Maria Carolina Aguirre Mastrangelo eta Haritz Antoñanzas Urdangarin.

Idazkari lanetan Idoia Garmendia Callejak dihardu.

Bilkurari hasiera eman aurretik neuk, Idazkariak, azaldu dut Echaniz zinegotziak (EAJ-PNV) Iparragirre Eraikuntza Lanak, S.L. enpresaren plantillan sartu berri dela adierazi duela. Jakinik Joxemiel Barandiaran kiroldegiko obraren lanak enpresa hau ari dela burutzen, bere kezka agertu du eta jakin nahi du ea arazoren bat suposatuko lukeen honek, obrarekin lotura duten gaiak jorratzen eta bozkatzeten diren garaian.

Udalaren aholkulari juridikoari kontsulta luzatu ostean, honek azaldu digu plantillaren parte izanik baina enpresaren zuzendaritzan ez dagoenez, eta honen erabakitze ahalmenean eraginik ere ez duenez, ez lukeela arazorik izango kiroldegiari dagozkion gaiak jorratu eta hauetan bere bozka emateko.

Hala ere, hau jakinda, Echaniz zinegotziak (EAJ-PNV) adierazi du kiroldegiaren obrarekin lotura duten gaietan abstenitu egingo dela eta Osoko Bilkuraren aretoa utziko duela gai hori jorratzen den bitartean.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkeztu dira 2024ko otsailaren 29an egindako ohiko bilkurako akta, eta 2024ko martxoaren 21ean egindako ohiko eta ezohiko bilkuretako aktak, eta idatzita dauden moduan onartu dira.

II.- ALKATETZAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA.-

Ondoren Alkateak azken Osoko Bilkuratik gaur arte emandako Alkatetzaren Ebazpenen berri eman du, ebazpen hauen zenbakizko laburpen baten bidez.

Osoko Bilkura jakinaren gainean gelditu da.



III.- UDAL TITULARTASUNEN KIPAMENDU – SISTEMA OROKORRAK HANDITZEKO ETA GAITZEKO LURZORUAK ESKURATZEKO LIZITAZIOAREN ESLEIPENA.-

Osoko Bilkurak, 2024ko martxoaren 21ean egindako bilkuran, Udal titulartasuneko ekipamendu – sistema orokorrek handitzeko eta gaitzeko lurzorua eskuratzeko, prozedura ireki bidez, esleitzeko kontratazio espedientea eta honi dagokion klausula ekonomiko eta administratibo partikularren plegua onartu eta lizitazio deialdia bigarren aldiz egitea erabaki zuen.

Espedientea kontratatzailearen profileen jarri zen ikusgai 2024ko martxoaren 22an eta proposamenak aurkezteko jarritako epean proposamen bakarra aurkeztu da, Jose Javier Olano Irazabalek eta Ignacio Olano Irazabalek aurkeztutakoa.

Proposamenak baldintza pleguan jasotzen diren baldintzak betetzen dituzenez, kontratazio mahaiak proposamen hau onartu egin zuen eta bere aldeko esleipen proposamena egin du.

Jose Javier eta Ignacio Olano Irazabalek egindako proposamena ondorengoa da:

- Lur-sailen eta Komendradi baserriaren salmenta prezioa: 640.136,17 €.

Hau honela, kontratazio mahaiak Jose Javier Olano Irazabalek eta Ignacio Olano Irazabalen aldeko esleipen proposamena egin du.

Ormazabal zinegotziak (EH Bildu) dio HAPOaren zain gelditzen direla ikusteko ea zer garapen duen honek.

Hau honela, eta gaia Hirigintza eta Ogasun batzorde informatzaileetan informatua izan ondoren, Osoko Bilkurak, aho batez, honako akordioak hartu ditu:

Lehena.- Udal titulartasuneko ekipamendu – sistema orokorrek handitzeko eta gaitzeko lurzorua eskuratzeko Jose Javier Olano Irazabal eta Ignacio Olano Irazabalek esleitzeko, SEI-EHUN ETA BERROGEI MILA EHUN ETA HOGEITE HAMASEI euro ETA HAMAZAZPI zentimoko (640.136,17 €) prezioan, hau da, proposatzaileak bere eskaintza ekonomikoan jarritako prezioan.

Bigarrena.- Alkateari ahalmena ematea, erabakia behar bezala bete dadin, hartutako erabakiari dagozkion gainerako zehaztapenak egin ditzan.

Hirugarrena.- Esleipen honen jakinarazpena kontratazio prozedura honetara aurkeztutako guztiei egitea, hala nola kontratatzailearen profileen argitaratzea

IV.- KIROLDEGIA HANDITZEKO 5.1 FASEKO OBRAREN 21. OBRA EGIAZTAGIRIA.-

Echaniz zinegotzia (EAJ-PNV) abstenitu egin da eta aretotik irten da.





LAZKAOKO UDALA

Joxemiel Barandiaran kiroldegiaren birmoldaketa lanen obra zuzendaritza daramaten Jovino Martinez Sierra arkitektoak eta Alberto Olabarrieta Etxeberria arkitekto teknikoak lan hauen obra egiaztatzea egin dute.

Hogeita batgarren obra egiaztatzea HIRUREHUN ETA HOGEITA BEDERATZI MILA BERREHUN ETA HIRUROGEITA HAMAHIRU EURO ETA ZAZPI ZENTIMOKO (329.273,07 €) da, gehi BEZ.

Lanak Iparragirre Eraikuntza Lanak S.L. enpresa ari da burutzen.

Udal teknikariak oniritzia eman dio ziurtagiri honi.

Ormazabal zinegotziak (EH Bildu) dio gai honen inguruan abstenitzen jarraituko dutela, beren ustez hau HAPOaren ondoren egin behar zelako.

Hau guztia kontuan izanda, Hirigintza, Etxebizitza eta Zerbitzuetako batzordearen proposamenaren aurrean, Osoko Bilkurak, aldeko 6 boto (EAJ-PNV), aurkako botorik gabe eta 6 abstentzioz (EH Bildu), ziurtagiri hau onartu du.

V. GALDERAK ETA ERREGUAK.-

Echaniz zinegotzia (EAJ-PNV) aretora bueltatu da.

Ez da galderarik egon.

VI.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jo du arratsaldeko seiak eta berrogei direnean eta nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dut.



LAZKAOKO
UDALA